

## **AZAROAK 25: EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

Azaroaren 25ean ozenki aldarrikatu nahi dugu emakumeen kontrako indarkeria mota guztien aurka gaudela; batez ere, indarkeria sorrarazten duten faktore guztien aurka ere bagaudela.

Emakume izateko eta bizitzeko pertsona adina modu ditugu eta sistema patriarkalak emakume bakoitzarentzat bere indarkeria mekanismo espezifikoak dauka gure adin, klase, jatorri eta identitatearen arabera.

Berdintasun Kontseiluan urteak daramatzagu indarkeria matxistaren gaia lantzen, prebentzioan eta sentsibilizazioan. Eskola guztietan eta herrian tratu onak eta berdintasuna lantzeko programa martxan da, gazteen artean indarkeria matxista prebenitzeko helburuz. Berriki, indarkeria matxistari aurre egiteko erakunde arteko protokoloa sinatu dugu, Ertzaintza eta Osakidetzarekin batera, indarkeria jasaten duten emakumeei arreta egokia eskaintzeko eta koordinazioa hobetzeko asmoz.

Horrez gain, emakumeentzako Jabetze Eskolak martxan jarri genituen orain urte mordoxxka. Ikastaro eta tailer horien helburua da emakumeen ahalduntzean eragitea, tresna eta baliabideak eskainiz euren egoeraren jabe izan daitezen eta konfiantza eta indarra berreskuratu dezaten euren bizitzetan autonomia eta erabaki gaitasuna izateko. Horrela, bizi aske, zoriontsu eta burujabeak bultzatu asmoz.

Bide horretan, Emakumeen Etxea sortzen ari gara, emakumeen ahalduntzerako espazioa izango dena, Hernani feminismitik eraldatzeko tresna izango da, herriko emakumeekin batera definitzen ari dena.

Bestetik, aipatu beharra dugu Berdintasun Kontseilua herriko beste mugimendu feministekin batera elkarlanean aritzen dela.

Ez dugu ahaztu behar, azaroak 25az gain, sistema patriarkalak beste 364 egunez jarraitzen duela gu iraintzen, erasotzen eta erailtzen. Eta honen aurrean feministok lanean jarraituko dugu urte osoan, batzutan pankartaren atzean, bestetan instituzio politikoekin protokoloak elkarlanean lantzen, jaietan emakumeentzako espazio seguruak sustatzen, indarkeria sexistaren gaia jendartearen erdigunean jartzen, autodefentsa feminista tailerrak egiten.

Bada garaia sistema honek sortzen duen beldur eta biolentzia arduraz kudeatzeko, arazoaren errora joaz norberaren jardunetik gure praktika politiko kolektiboetara pasatuz. Indarkeria sexistaren aurkako borrokan apustu garbiak egiteko garaia dugu, bakoitza bere eremutik norabide berean.

Horregatik, Hernaniko Udaleko alderdi politiko guztiei eskatu nahi diegu, berdintasun politikak bultzatzen jarrai dezatela, beharrezkoak diren bitarteko ekonomiko eta tekniko guztiak jarritz.

Azkenik, dei egiten dugu azaroak 25aren harira antolatutako ekimenetan parte hartzera, bereziki azaroak 25ean bertan egingo den manifestazioan.

2016ko azaroaren 23an



**berdintasun kontseilua**